Abatarra sortu, eta harekin dolua arindu?

Teknologiak aukera ematen du hildako pertsonen presentzia digitala mantentzeko, gaur egun. Baina zer ondorio ditu horrek doluan eta ongizate emozionalean? *Berria*ko artikulu baten bidez, gai horren inguruan arituko gara.

Sekuentzia honetan, hau egin dezakezu:

- **Berri baten inguruko iritzi laburra idatzi.**
- **Artikuluan irakurritakoaren ulermen xehea landu.**
- **Ziurtasun-maila adierazi, alegiazko ahalera eta erreala erabilita.**
- ***Bere, haren, beraren*... noiz/zein erabili landu.**
- **Pertsona batek laguntza eske idatzitako mezuari erantzun, aholkua emateko asmoz.**



Adimen artifizialak sortutako irudia

Irakurri aurretik

BAKARKA

1. Ideia ona al da?

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Irakurri *The New York Times*-ek argitaratutako berria, eta idatzi zeure iritzia, labur, taldeko foroan.



The New York Times

Hilabeteak geratzen zaizkio. Semeak espero du adimen artifizial bidez egindako bertsioak aita bizirik mantentzea. Peter Listrori odoleko minbizia diagnostikatu ziotenean, haren familiak erabaki zuen abatar birtual bat egitea, hil ondoren berarekin hitz egin ahal izateko.



- Zer iruditzen zaizu?
- Zuk egingo zenuke?

Irakurri ikaskideen iritziak foroan.

BAKARKA

Irakurri bitartean

2. Zer kontatu digu artikuluak?

Irakurri Jose Mari Pastorrek Berrian idatzitako artikulua, eta aukeratu erantzun egokiak.

Peterren lagunak hilerrian

Jose Mari Pastor



berria

Ekaineko egun batean Peter Listro kameraren aurrean jarri zen New Yorkeko etxean bere irudia, gorpuzkera, hitzak, keinuak eta beste grabatzeko. 83 urte zituen. Otsailean medikuen epaia entzun zuen: odoleko minbizia zuen. Eta urtebete baino gutxiagoko bizi itxaropena.

Senideek ez zuten Peter betiko galdu nahi. Egungo teknologiak zenbait baliabide eskaintzen dituela jakin, eta StoryFile enpresara jo zuten abatar bat sortu eta harekin bideo pantaila baten bidez hitz egiteko. *Grief-Tech* —Dolu-*Tech*— delakoak aukera batzuk ematen ditu heriotzak eragiten digun pena leuntzeko: hil den pertsona baten mezuak hedatzen dituzten txatbotak edo maite duzun lagunaren 3Dko abatarra. Ondo, baina...

Txatbot horiek aipatu ditu *Le Monde* egunkariak *Adimen artifiziala eta hilezintasun numerikoaren ilusioak* artikuluan. Testuan ilusio horrek ekar dezakeen arriskuaz mintzatu da Laurence Picque psikoterapeuta: «Bestea artifizialki mantentzen badugu, ez dago dolu prozesurik abiatzerik». Beste aditu baten arabera, kontuz ibili behar da: doluan oso sentiberak eta zaurgarriak gara, eta halako erlazioetan proiektatzeko arrisku handia dago.

Azaroaren 1a da gaur. Heriotzaren Nazioarteko Eguna edo. Guztiok gara geure eta maite dugun jendearen heriotzez kontziente. Atsekabe horri aurre egiteko hainbat modu daude. Abatarrak sortzea izan liteke horietako bat. Haatik, zenbateraino da etikoa? Izan ere, bizitza negozio bihurtu dute. Etekina. Heriotza ere bai. Dolua pasatzen utzi beharrean, dolua ezabatu egin nahi digute. Eta poltsikoak hustu. Alta, dolua besterenezina da. Guztiz pertsonala. Hildakoa gurekin berriro egongo ez dela onartu eta aurrera egitea da bidea. Fikzioak errealitatearen mina arintzen du, baina zenbateraino komeni da hildakoaren inguruan sortutako ilusioa luzatzea?

Bai, kontsolagarria izan daiteke lagun horrekin alegiazko elkarrizketa bat izatea: «Zer afaldu nahi duzu gaur?»; «Igandean Txindokira ala nahiago duzu serie bat ikusi?»; «Mediterraneora barik urrunera joango bagina oporretan?». Ondo dago hori, baina gero? Argazkiak, bideoak, audioak, objektuak eta abar baliagarriak dira hildakoak gogoratzeko. Horiekin guztiekin errealitatean bizi gara. Txatbotek, aldiz, ilusio faltsuari lotzen gaituzte. Peter Listrori buruzko artikuluaren harira bere kasua azaldu du *The New York Times*-eko irakurle batek: aitak elkarrizketa bat egin zion bederatzi urte zituenean eta grabatu egin zuen. Umeak 12 urte zituenean hil zen gizona. Neskak grabazioa entzuten zuen batzuetan aita berarekin hitz egiten aditzeko. Egun batean amak kasete zaharra ikusi eta barruan zer zuen jakin gabe bota zuen. Kolpe latza izan zen alabarentzat. Hala ere, neskak argi du: «Aitaz oroitu nahi nuen haren ahotsa entzuten nuenean. Besterik ez. Ez dut bera ikusi nahi hitz horiek modu artifizialean esaten».

Gai horren beste ertz batez mintzatu da irakurle bat *Süddeutsche Zeitung* kazetan, aholku eske. Izan ere, emaztea duela sei hilabete hil zen, eta andrea biluzik agertzen den argazkiei begiratuz masturbatzen da. Ez al dago inor, joandako bikotekidearen irudia gogoratu, negar egin edo sexu-desiorik ez duenik? Eta ez soilik hil eta sei hilabetera. Zer esan gizon horri? Berak jakingo du zer harreman mota zuen andrearekin: hura soilik sexuagatik ote duen gogoan oraindik. Edo beste kontu batzuek ere oroitarazten dioten emaztea zena. Horixe suposatzen dut.

Hildakoa gogoan izatea guztiz normala da. Humanoa. Denboraren joanak gomutak higatu, lausotu egingo ditu, baina pertsona hori ez da guztiz joango hura ezagutu zuten senideak edo lagunak bizirik dauden bitartean —inor ez da herenamonaz gogoratzen—. Horiek doazenean itzaliko dira argiak: denak ahaztuak oroitzapenen kanposantuan.

Azaroaren 1a. Bizirik egongo da gaur Peter Listro? Emaztea eta semea harekin solastatuko dira modu ikus-entzun-usain-dasta-ukituzkoan ala hizketaldi artifiziala izango dute haren abatarrarekin hilerrian liliak utzi eta gero?

1. **Zein da artikuluaren gai nagusia?**

   a) Teknologiak oroitzapenak gordetzeko eskaintzen dituen aukera berrien deskribapena.

   b) Teknologiak dolu-prozesuan izan dezakeen eragina eta horrek sortzen dituen dilema etikoak.

   c) Adimen artifizialaren garapenak gizartearen etorkizunean izango duen eragina.

2. **Egilearen jarrera:**

   a) Guztiz aldekoa da

   b) Neutrala

   c) Kritikoa da, eta hausnarketarako gonbidapena egiten du

Erantzun zuzenak 9. orrialdean daude.

BAKARKA

3. Xehe-xehe ulertzeko

Jarraian, erantzun galderei.

1. Zein izan zen Peter Listroren senideen helburua StoryFile enpresara jotzean?

2. Zergatik uste du Laurence Picque psikoterapeutak arriskutsua izan daitekeela hildako pertsona baten presentzia artifizialki mantentzea?

3. Zergatik dio egileak "bizitza negozio bihurtu dute. Etekina. Heriotza ere bai"? Zer kritikatu nahi du?

4. Zer esan nahi du egileak esaldi honekin: "Dolua besterenezina da"?

5. Zer alde dago, egilearen ustez, argazki edo grabazio zahar baten eta adimen artifizialaren bidez hildako pertsona batekin elkarrizketan aritzearen artean?

6. Pastorren iritziz, hildakoa gogoan izatea guztiz normala da; baina, noiz arte gertatzen da hori?

7. Egileak ez du ondorio itxirik ematen artikuluaren amaieran. Zure ustez, zergatik amaitzen du Peter Listroren inguruko galdera batekin?

Alderatu erantzunak ikaskide batekin.
Erantzun zuzenak 9. orrialdean daude.

Osatu taula: zer ideia indartzeko erabiltzen ditu adibideak egileak?

Testuan aipatzen den adibidea	Zer ideia indartzeko erabiltzen du egileak?
Peter Listroren kasua	
Kasete zaharraren istorioa	
Süddeutsche Zeitung-eko irakurlearen testigantza	

Alderatu erantzunak ikaskide batekin.
Erantzun zuzenak 9. orrialdean daude.

Irakurri ondoren

TALDEAN

4. Izan liteke

Elkartu ikaskide batekin, eta erreparatu artikuluaren beheko esaldiari. Zergatik erabiltzen du egileak *liteke* eta ez *daiteke*?

Atsekabe horri aurre egiteko hainbat modu daude. Abatarrak sortzea izan **liteke** horietako bat.

_____

_____

_____

_____



Partekatu erantzunak talde handian.
Erantzun zuzenak 9. orrialdean daude.

GOGORATU: ALEGIAZKO AHALERA

Ahalera hipotetikoa, edo alegiazko ahalera, egoera bat gertatzeko posibilitatea adierazteko erabiltzen da. Posibilitate hori irreala izaten da.

Bihar euririk egingo ez balu, mendira joan zintezke.
(Hemen ahalera hipotetikoa erabiliko dugu posibilitatea irreala delako, gaur euria ari du eta biharko gauza bera espero dugu).

Autobusa galtzen baduzu, trenean joan zaitezke.
(Hemen ahalera erreala erabili dugu trenean joateko posibilitatea erreala delako, tren hori existitzen da-eta).

TALDEAN

Jarraitu ikaskidearekin; irakurri esaldiak, eta erabaki zer adierazten duten: errealitatea, aukera ala hipotesi irreala.


Pixabay

1. Dolua pertsonala da. *(errealitatea)*
2. Batek pertsona batzuei lagundu liezaieke.
3. Oroitzapenek mina arin dezakete.
4. Teknologia horrek mendekotasuna sor lezake.
5. Pertsona bakoitzak dolua modu desberdinean bizi du.
6. Hildakoarekin hitz egiteak lasaitu dezake norbait.

Erantzunak 9. orrialdean daude.

Jarraitu binaka, eta berridatzi esaldi hauek adibidean bezala, ziurtasun-maila txikiagotuz.

1. Teknologia horrek dolua zailtzen du.
   Teknologia horrek dolua zail dezake/lezake.
2. Oroitzapen digitalek lagun dezakete.
3. Abatarrek dependentzia sortzen dute.
4. Pertsona guztiek modu berean bizi dute dolua.
5. Hildakoarekin hitz egitea kontsolagarria izan daiteke.

Erantzunak 9. orrialdean daude.

TALDEAN

5. Nori egiten dio erreferentzia?

Jarraitu ikaskidearekin; irakurri esaldiak eta erantzun galderoi.

Ekaineko egun batean Peter Listro kameraren aurrean jarri zen New Yorkeko etxean **bere** irudia, gorpuzkera, hitzak, keinuak eta beste grabatzeko.

... StoryFile enpresara jo zuten abatar bat sortu eta **harekin** bideo pantaila baten bidez hitz egiteko.


a) Nori egiten diote erreferentzia *bere* eta *harekin* hitzek?

b) Zer alde dago bi formen artean?

c) Zergatik ez du egileak izena berriro errepikatzen?

Azpimarratu erreferentzia egiten duen hitza (anafora), eta idatzi nori edo zeri dagokion (erreferentea).

1. Peterrek **bere** istorioa grabatu zuen. ***(Peterren)***
2. Peter Listro kameraren aurrean jarri zen New Yorkeko etxean bere irudia, gorpuzkera, hitzak, keinuak eta beste grabatzeko.
3. Artikuluaren harira bere kasua azaldu du irakurle batek.
4. Aitaz oroitu nahi nuen haren ahotsa entzuten nuenean.
5. Bizirik egongo da Peter Listro? Hizketaldi artifiziala izango dute haren abatarrarekin?



Erantzunak 9. orrialdean daude.

HAREN / BERE / BERAREN

HAREN: Forma soila da, eta aurreko esaldian aipatutako zerbaiti edo norbaiti egiten dio erreferentzia, hirugarren bati.
Miren triste dagoenez, Ana HAREN etxera joan da. (Ana Mirenen etxera joan da)
**Ni bere autoan etorri naiz (haren)*

BERAREN: *Haren*en forma indartua da, eta forma horrekin iradoki dezakegu hurbileneko hori dela erreferentea, eta ez lehenago aipaturiko norbait (*haren*).
Xabier ezagutzen duzu? Bada, BERAREN lagunekin goaz.

BERE: Bihurkaria da, subjektuari egiten dio erreferentzia:
Patxik BERE (Patxiren) dirua ekarri du.

Sg.	*Bere*	*Haren*	*Beraren*
Pl.	*Beren/euren/beraien*	*Haien*	*Beren/euren/beraien*

Euskarak, sarritan, ez du gaztelaniazko *su* posesiboaren edo frantsesezko *son, sa, ses, leur(s)* posesiboen ordain-premiarik, eta, beraz, egoki da haren ordaina saihestea:
~~*Bere*~~ *txapela jantzi, eta...*
Poligono erregular batek ~~*bere*~~ *alde eta angelu guztiak berdinak ditu.*


BAKARKA

6. Aholkularitza emozionala

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Zu langilea zara doluari eta ongizate emozionalari buruzko aholkularitza-zerbitzuko enpresa batean, eta pertsona batek mezu bat bidali dizu. Irakurri mezua, eta idatzi erantzuna. 200 hitz inguru idatzi behar dituzu; kontuan izan sekuentzian landutako baliabideak.

Kaixo:
Duela urtebete hil zen nire ama, gaixotasun luze baten ondorioz. Harrezkero, dolua egiten saiatu naiz, baina egun batzuk oso gogorrak egiten zaizkit oraindik. Aurrekoan, lagun batek esan zidan adimen artifizialaren bidez ama baten abatar digitala sor daitekeela. Horretarako, argazkiak, bideoak eta ahots-grabazioak erabiliko lituzkete, eta, antza, harekin hitz egiteko aukera izango nuke.
Egia esan, ez dakit ideia horrek lasaituko nindukeen ala kontrakoa gertatuko litzatekeen. Ez dakit zer egin, eta adituen iritzia jakin nahiko nuke. Lagunduko didazue, mesedez?

Koldo


Pixabay

Irakasleak emango dizu feedback.

ERANTZUNAK

2. Zer kontatu digu artikuluak?

1- b; 2- c

3. Xehe-xehe ulertzeko

- 1- Peter hil ondoren ere, harekin elkarreraginean jarraitzeko aukera izatea, haren abatar digital baten bidez, ez zutelako Peter betiko galdu nahi.
  2- Ezin delako dolu-prozesua abiatu, hildakoaren presentzia artifizialki mantentzen baita.
  3- Heriotzaren eta doluaren inguruko beharrak negozio bihurtzea salatzen du.
  4- Dolua pertsona bakoitzak bizi behar duen prozesu pertsonala dela, eta ezin dela saihestu edo beste zerbaitekin ordezkatu.
  5- Oroitzapen materialek iragana gogoratzen laguntzen dute, baina ez dute hildakoaren presentzia simulatzen. Abatarrek, aldiz, elkarreraginaren ilusioa sor dezakete.
  6- Hildakoa gogoan izatea humanoa da; pertsona hori ez da guztiz joango hura ezagutu zuten senideak edo lagunak bizirik dauden bitartean (gogoratzen duten bitartean).
  7- Amaiera irekiak irakurlea hausnartzera gonbidatzen du, eta ez dio erantzun itxirik ematen; horrela, irakurleak bere iritzia eraiki behar du.
- Peter Listroren kasua:
  Gaiari sarrera ematea eta hilezkortasun digitalaren adibide erreala aurkeztea.
- Kasete zaharraren istorioa:
  Oroitzapena eta simulazio digitala ez direla gauza bera erakustea.
- Süddeutsche Zeitung-eko irakurlearen testigantza:
  Dolua bizitzeko moduak askotarikoak direla erakustea, eta epai moral sinpleak saihestea.

4. Izan liteke

- Egileak *izan liteke* erabiltzen du, ez duelako baieztapen ziurrik egin nahi, eta abatarrak sortzea doluari aurre egiteko aukera irreala iruditzen zaiolako.
- 1- errealitatea; 2- hipotesi irreala; 3- aukera; 4- hipotesi irreala; 5- errealitatea; 6- aukera
- 1- zail dezake/lezake; 2- lagun lezakete; 3- sor dezakete/lezakete; 4- bizi dezakete/lezakete; 5- liteke

5. Nori egiten dio erreferentzia?

- a) *bere* → Peter Listrori; *harekin* → abatarrari.
  b) BERE: aditzean pertsona bera agertzen bada erabiltzen da; HAREKINek adierazten duen pertsona ez da aditzean agertzen.
  c) Egileak ordezko hitzak erabiltzen ditu testua arinagoa eta naturalagoa izan dadin, errepikapena saihesteko eta testuak kohesio handiagoa izateko.
- 1- bere (Peterren); 2- bere (Peterren); 3- bere (irakurle baten); 4- haren (aitaren); 5- haren (Peter Listroren)

HIZTEGI LAGUNGARRIA

Ez dago dolu-prozesurik abiatzerik. Ezin da hasi dolu-prozesua.

Doluan oso sentiberak eta zaurgarriak gara. Sentiberak eta ahulak gara, erraz izan gaitezke kaltetuak.

Atsekabe horri. Pena horri.

Dolua besterenezina da. Ezin zaio beste bati pasatu.

Denboraren joanak gomutak higatu. Denborak oroitzapenak gastatu.